



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urriaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko urriaren 3an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : FALXA Odile.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2023ko irailaren 29a

Afitxatze eguna : 2023ko irailaren 29a

4. ERABAKIA: HAURRAK JANTOKIAN ZAINTEKO DIRULAGUNTZA ESKOLA PRIBATUEI ESLEITZEA

(7.5 nomenklatura– Dirulaguntzak)

Auzapezak jakinarazi du herriko eskola pribatuek Ortzaizeko jantokia erabiltzea erabaki dutela. Zehaztu du, jantoki denboran haurren zaintzeko laguntza hautazkoa dela.

2022-2023 ikasturterako, Saint Michel eskolan eta Ortzaizeko Ikastolan eskolaratuak diren herriko haur bakoitzeko 90 euroko laguntza ematea proposatu du.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, Saint Michel eskolan ikasle eta Ortzaizen bizi diren haur bakoitzeko 90 euro ematea, jantoki denboran haurren zaintzeko laguntza gisa, hots 1 440 € (16 haur x 90 euro).

- **ERABAKI DU**, Ortzaizeko Ikastolan ikasle eta Ortzaizen bizi diren haur bakoitzeko 90 euro ematea, jantoki denboran haurren zaintzeko laguntza gisa, hots 1890 € (21 haur x 90 euro).

- **ZEHAZTU DU**, uneko aurrekontuan horretarako kredituak badirela.

- **AGINDU DIO**, Auzapezari, dirulaguntzaren ematea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko urriaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/10/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/10/10ean.